

Iritzi publikoa ez da existitzen¹

PIERRE BOURDIEU

«L'opinion publique n'existe pas». *Les Temps Modernes* (1973) 318: 1292-1309

(«L'opinion publique n'existe pas»)

Honako hauxe zehaztu nahi dut lehenik: nire helburua ez da iritzi sondeoak era mekaniko eta erraz batez salatzea, horien funtzionamenduaren eta funtzioen analisi zorrotza egitea baizik. Horiek ontzat ematen dituzten hiru postulatu auzitan jartzea dakar horrek. Mundu guztiak iritzia izan dezakeela suposatzen dute iritzi inkesta denek; edo, bestela esanda, iritzi baten produkzioa edozeinen eskuetan dagoela. Sentimendu demokratiko tolesgabe bat urratetik aldentuz, lehen postulatu horren aurka egingo dut. Bigarren postulatu: iritzi guztiak balioa dutela suposatzen da. Uste dut froga daitekeela ez dela horrela, eta inola ere indar bera ez duten iritziak pilatzeak zentzurik gabeko artefaktuak produzitzea dakarrela. Hirugarren postulatu inplizitua: honako hipotesi hau dago mundu guztiari galdera bera egitearen azpian, hots, arazoei buruzko adostasuna dagoela; beste era batera esanda, egitea merezi duten galderari buruzko akordioa. Hiru postulatu horiek, nik uste, distortsio mordo bat inplikatzeko dute, eta bistara azaltzen dira datuen bilketan eta analisisian zorrotasun metodologikoaren kondizio guztiak betetzen direnean.

Agiraka teknikoak egiten zaizkie sarritan iritzi sondeoei. Esaterako, zalan-tzan jartzen da laginen errepresentatibitatea. Nik uste dut objekzio horrek ez duela jada oinarririk, gogoan hartzen badira gaur sondeoen produkzioarako bulegoek darabiltzaten bitartekoak. Beste hau ere agiraka egiten zaie: galdera

¹ Itzulpen hau Jesus Mari Larrazabalek egin du. Pierre Bourdieu (1930-2002) soziologoak lehenik *Les Temps Modernes* aldizkarian frantsesez argitaratu zuen, eta gero *Questions de sociologie* (Paris: Minit, 1984) izeneko bere liburuan (222-235 orrialdeetan) birrargaratu. Lehen argitalpen hura Arraseko Noroik Kultur Zentroan, 1972ko urtarrilean, Bourdieuk berak egindako hitzaldi baten testua da. Paulo Iztueta adiskide soziologoari, adiskide mina soziologo eta lankideaz gain, eskaintzen diot itzulpen hau, unibertsitateko lanetik erretiroa hartu duenean.

alboratuak egitea, edo, hobeto esanda, galderak beren formulazioan alboratzea. Hori are egiazkoagoa da, eta askotan gertatzen da galdera egiteko eraren bidez erantzuna induzitzea. Horrela, adibidez, galdeketaren funtsezko arau bat bortxatuz —erantzun posible guztiei «beren aukerak lagatzea»—, askotan, aukera posibleetako bat ez da jartzen edo aukera bera hainbat aldiz proposatzen da formulazio ezberdinetan, galderetan edo proposatutako erantzunetan. Horrelako alboratze mota guztiak daude, eta interesgarria litzateke alboratze horiek agertzearen gizarte kondizioei buruz geuk galdera egitea. Gehienetan, galdeketa produzitzen dutenek dituzten lan baldintzetan dute oinarria alboratze horiek. Baina baita iritzi sondeoetarako institutuek fabrikatzen dituzten problematikak eskaera berezi baten mende egotean ere. Hala, irakaskuntza sistemari buruz frantsesek duten iritzia biltzen duen nazio inkesta handi baten analisiari heltzerakoan, irakaskuntzari buruzko galdera guztiak jaso ditugu hainbat azterketa bulegoren artxiboetan. Horrek begien aurrean jarri digu berrehundik gora direla irakaskuntza sistemaz 1968ko Maiatzaz geroztik egindako galderak; eta, aldiz, hogeitai baino gutxiago 1960 eta 1968 bitartean egindakoak. Horrek esan nahi du era horretako organismo batean nagusi bihurtzen diren problematikak koiunturari sakonki loturik daudela, eta mota jakin bateko gizarte eskaera baten mende. Irakaskuntzaren arazoa, esaterako, ezin du planteatu iritzi publikoko institutu batek, arazo politiko bilakatzen den arte. Begien bistan dago institutu horiek dituzten ezberdintasunak beren problematikak sortzen dituzten ikerketa zentroekin alderatuta; azken horiek, zeru garbian izan ez arren, distantzia handiagoa baitute, nolana ere, zuzenean eta tarterik gabe gertatzen den gizarte eskaerarekiko.

Goian aipatutako galdera horien analisi estatistiko labur batek begietara ekarri digu «pertsonal politikoaren» kezka politikoei zuzenean lotuta zeudela gehienak. Gaur ilunabarrean paper txikiekin jolasten hasiko bagina eta irakaskuntzaren alorrean garrantzitsuentzat jotzen dituzuen bost gai idazteko eskatuko banizue, ziurrenik hortik lortuko genukeen zerrenda oso ezberdina izango litzateke iritzi inkestetan egindako galderekin alderatuta. Sarritan egin da «Lizeoetan [bigarren mailako irakaskuntza institutuetan] sartu behar al da politika?» galdera (edo horren aldaerak); aldiz, inoiz gutxitan egin da honako galdera hau «Programak aldatu behar al dira?», edo honako beste hau «Edukiak transmititzeko modua aldatu behar al da?». Berdin honako beste hau ere: «Irakasleak birziklatu behar al dira?». Hainbat eta hainbat galdera, oso garrantzitsu direnak, beste ikuspuntu batetik behintzat.

Iritzi sondeoek proposatzen dituzten problematikak interes politikoetara makurturik daude, eta indartsu eragiten diote horiek, aldi berean, erantzunen esanahiari eta emaitzen argitalpenari ematen zaion esanahiari. Iritzi sondeoak ekintza politikoaren tresna bat da gaurko egoeran. Bere funtziorik garrantzitsuena, agian, iritzi indibidualen batuketa hutsezko iritzi publiko bat existitzen den ilusioa ezartzea da; batez besteko iritzia edo iritzien batez bestekoa litzatekeen zerbait existitzen den ideia ezartzea. Egunkarietako lehen orrietan

ehunekoetan azaltzen den «iritzi publikoa» (frantsesen ehuneko 60 honako honen alde daude...) *tresna* huts eta sinple bat da, eta honakoa disimulaztea da bere funtzioa: garai jakin bateko momentu batean, iritzi egoera indar eta tentsio sistema bat dela, eta ez dagoela ezer desegokiagorik iritzi egoera errepresentatzeko portzentaia baino.

Badakigu indarraren erabilpen guztiek alboan daramatela erabiltzailearen indarra legitimatzea helburu duen diskurtsoa; esan ere esan dezakegu honako hauxe dela indar erlazio guztiei dagokiena: indar osoa izatea, justu horixe disimulatu duen heinean. Hitz gutxitan, soilki hitz eginez, ondoko hau esaten duena da gizaki politikoa: «Jainkoa gurekin dago». Honako hauxe da «Jainkoa gurekin dago» esaldiaren baliokidea gaur: «Iritzi publikoa gurekin dago». Honako hauxe da iritzi inkestaren funtsezko efektua: aho bateko iritzi publikoa existitzen den ideia taxutzea; beraz, politika bat legitimatzea eta hori oinarritzen duten edo posible egiten duten indar erlazioak indartzea.

Bukaeran esan nahi nuena hasieran esan dudanez, orain saiatuko naiz oso azkar seinatzen zein diren *kontsensu efektu* hori produzitzeko erabiltzen diren operazioak. Lehen operazioa, hastapenean, postulatuatzat jende guztiak iritzia izan behar duela dioena, erantzunik eza kontuan hartu gabe lagatzean datza. Esaterako, jendeari honako galdera hau egiten diozu: «Pompidou gobernuaren alde zaude?». Jasotzen duzun emaitza: erantzunik gabe, ehuneko 30; bai, ehuneko 20, ez ehuneko 50. Esan honakoa esan dezakezu: alde ez daudenak gehiago dira alde daudenak baino, eta, gero, ehuneko 30 hori dago zokoan. Erantzunik eza baztertuta, alde daudenen eta ez daudenen ehunekoak ere birkalkula daitezke. Aukera sinple hori operazio teoriko ikaragarri garrantzitsua da, zuekin hausnartu nahi nukeena.

Erantzunik eza desagertzea hauteskunde kontsultetan bozka zuri edo baliogabeekin egiten den horixe bera egitea da; hauteskunde inkestaren filosofia inplizitua iritzi inkestari ezartzea. Hurbilagotik begiratuta, honako hauxe ikusten da: oro har, erantzunik eman gabekoen tasa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, eta emakume eta gizonen arteko tartea handiagotu egiten da aurkezten zaizkien arazoak benetan maila politikokoak direnean. Beste ohar bat: galdera batek zenbat eta zerikusi handiagoa izan jakintzaren —ezagutzaren— arazoekin, orduan eta zabalagoa da tartea asko ikasien eta gutxi ikasien erantzunik ezaren taseen artean. Alderantziz, galderak arazo etikoei buruzkoak direnean, ahulak dira ikasketa mailaren araberrako aldaketak (adibidez: «Haurrekin zorrotza izan behar al da?»). Beste ohar bat: galdera batek zenbat eta arazo gatazkatsuagoak azaldu, kontraesanen korapiloren bati gehiago heldu (esaterako, Txekoeslobakiako egoerari buruzko galdera, bozka komunista ematen duen jendearentzat), kategoria determinatu bati tentsio gehiago sortu, orduan eta sarriago izaten da erantzunik eza kategoria horretan. Beraz, erantzunik ezaren analisi estatistiko soilak informazioa ematen digu galderaren esanahiaz, eta baita kontuan hartutako kategoriaz ere; hori neurri berean definiturik datorrela *iritzia izateko* atxikitzen zaion *pro-*

babilitatearen bidez, nahiz aldeko edo aurkako iritzia izateko baldintza probabilitatearen bidez.

Iritzi sondeoen analisi zientifikoak *omnibus* problemarik egon apenas dagoela azaltzen du; ez dago galdetzen zaion jendearen interesen funtzioan berrinterpretatua ez den galderarik, lehen betebeharra delako erantzuleen kategoria ezberdinek zein galderari erantzun dioten uste duten argitzea. Iritzi galdeketaren efekturik kaltegarriena da jendea bere kabuz egin gabeko galderei erantzun beharrean jartzea. Demagun, adibidez, problema moralen inguruko galdera sorta, gurasoen zorrotasunari buruzkoak, irakasle eta ikasleen arteko harremani buruzkoak, pedagogia zuzeneko edo ez-zuzenekoari buruzkoak, eta abar; zenbat eta gizarte hierarkian beherago jo, orduan eta problema etikotzat areago hartuak direnak, baina goiko klaseentzat problema politiko izan daitezkeenak. Galdeketaren efektuetako bat erantzun etikoak erantzun politiko bihurtzea da, problematikaren ezarpenaren efektu sinplearen bidez.

Izan ere, erantzuna sortu ahal izateko, hainbat hastapenetatik abia daiteke. Hasteko, hor dago politikaren definizio aldi berean arbitrario eta legitimo, hau da, dominatzaile eta, horretan, disimulatzaile baten erreferentziaz *konpetentzia politiko* esan dezakeguna. Konpetentzia politiko hori ez dago unibertsalki zabaldua. Ikasketa mailaren arabera aldatzen da *grosso modo*. Bestela esanda, jakintza politikoa suposatzen duten galdera guztiez iritzia izateko probabilitatea nahikoa alderagarria da museo batera joateko probabilitatearekin. Diferentzia izugarriak ikusten dira: ezker muturreko mugimendu batean konprometitutako ikasle batek PSUren ezker aldera hamabost zati antzematen dituenean, ez dago deus erdi mailako koadro batentzat. «Zientzia politikoaren» inkestek begien bistakotzat jotzen duten eskala politikoan (ezker muturra, ezkerra, zentro-ekerra, zentroa, zentro-eskuina, eskuina, eskuin muturra eta abar), kategoria sozial batzuek gogotik erabiltzen dute ezker muturraren izkina txiki bat; beste batzuek zentroa bakarrik eta beste hainbatek eskala osoa. Azkenean, aukera egitea espazio erabat ezberdinak eranstea da; zentimetrotan neurtzen duen jendea batu egiten da kilometrotan neurtzen duenarekin; edo, hobeto esanda, 0tik 20ra puntuatzen duen jendea 9tik 11ra puntuatzen duenarekin. Konpetentzia, beste gauzen artean, pertzepzioaren zehaztasun graduarekin neurtzen da (estetikan ere halaxe da: batzuek margolari bakar baten bost edo sei modu bereiz ditzakete bata bestearen ondoan).

Konparazio hori urrutirago eraman daiteke. Pertzepzio estetikoaren alorrean, hasteko baimen kondizio bat dago: jendeak artelana artelan gisa pentsatu behar du; pertzepzio kategoriak behar ditu hura eraikitzeko, egituratzeko eta abar. Eman dezagun honela formulatutako galdera: hezkuntza zuzendu baten alde ala ez-zuzendu baten alde zaude? Batzuentzat politikaren esparruan sartzen da hori, guraso eta haurren arteko harremanen errepresentazioa gizartearen ikuspegi sistematiko batean integratzen delako; beste batzuentzat arazo moral soila da. Horrela, guk atondutako galdeketan, jendeari galdetzeko ea, beraien ustez, greba egitea, ile luzea eramatea, *pop* jaialdi batean parte har-

tzea eta abar politika den edo ez, aldaera oso handiak azaltzen dira klase sozialaren arabera. Galdera politiko bati era egokian erantzuteko lehen kondizioa galdera hori politiko dela mugatzeko gaitasuna edukitzea da; bigarrena, politiko dela mugatu ondoren, gutxi edo gehiago egoki edo justu diren taxuzko kategoria politikoak galderari aplikatzeko gaitasuna. Horiek dira iritzien produkzioaren kondizio bereziak, iritzi inkestak modu unibertsal eta uniforme batez betetzat ematen dituenak, gizaki guztiek iritzia produzi dezaketela dioen lehen postulatuaren funtzioan.

Jendeak iritzia produzitu ahal izateko duen bigarren printzipioa da nik «klase ethosa» esaten diodana («klase etika» ez esatearren); hau da, haurtzarotik jendeak barneratu duen balio implizituen sistema, hortik erantzunak sortzeko arazo zeharo ezberdinentzat. Roubaux eta Valenciennes taldeen arteko futbol partidu baten ondorengo irteeran jendeak elkarrekin truka ditzakeen iritzien koherentzia, logika, neurri handi batez, bere klase ethosari lotua dago. Erantzun politiko gisa hartzen diren erantzun mordoa benetan klase ethosetik produzituak dira; eta, hortaz, esanahi erabat ezberdina har dezakete zelai politikoan interpretatzen direnean. Horretaz, tradizio soziologiko baten aipamena egin behar dut; hain zuzen, batez ere Estatu Batuetan politikaren soziologo batzuen artean zabaldua, herri xehearen mailako klaseetan dagoen kontserbadurismoari eta autoritarismoari buruz komunzki hitz egiten dutenen artean. Tesi horiek inkestak edo hauteskundeak gainera konparazioan oinarritzen dira, hor azaltzen baita bidea honako hau esateko: herri xeheko klaseei, edozein herrialdetan, aginte harremanei buruz, askatasun indibidualaz, prentsa askatasunaz eta bestez galdetzen zaienean, emandako erantzunak beste klaseek emandakoak baino «autoritarioagoak» dira. Hortik, osotasunean ondorioztatzen da gatazka dagoela balio demokratikoen (gogoan daukadan Lipset autorearen kasuan, balio demokratiko estatubatuarak dira) eta herri xeheko klaseek barneratu dituzten balioen artean; izan mota autoritario eta errepresibokoak diren balioen artean. Hemendik ikuspegi eskatologiko moduko bat ateratzen da: igoaraz dezagun bizitza maila, ikasketa maila, eta, horrela, demokrazia amerikarraren hiritar onak produzituko ditugu, errepresiorako, autoritarismorako eta abarrerako joera diru sarbide txikietara, ikasketa maila txikietara eta gauza antzekoetara lotua denez. Nire irudiko, hemen dago gakoa: galdera batzuei ematen zaien erantzunen esanahian. Eman dezagun era hone-tako galdera sorta bat: Sexuen berdintasunaren aldekoa al zara? Ezkontideen sexu askatasunaren aldekoa al zara? Hezkuntza ez-errepresibo baten aldekoa al zara? Gizarte berriaren aldekoa al zara? eta abar. Eman dezagun gisa hone-tako beste galdera sorta bat: Irakasleek greba egin behar dute beren egoera kinka larrian jartzen denean? Irakasleek beste funtzionarioekin elkartasunez jokatu behar dute gatazka sozialeko garaietan? eta abar. Bi galdera multzo horiek, klase sozialaren arabera, erabat inbertsoa duten erantzunak ematen dituzte: lehen multzoko galderek, gizarte harremanen eta horien forma sinbolikoaren halako berritze batekin loturik egonda, aldeko erantzun nabarmenagoak bideratzen dituzte gizarte hierarkian gora jo ahala, eta horren barruan

formazio mailan gora jo ahala; alderantziz, klaseen arteko indar harremanen aldaketa errealei buruzko galderek aurkako erantzun nabariagoak bideratzen dituzte gizarte hierarkian gora jo ahala.

Labur esanda, «Herri xeheko klaseak errepresiboak dira» proposizioa ez da ez egiazko ez faltsu. Egia da, batetik, etxe barruko moralaz, belaunaldien edo sexuen arteko harremanei buruzko arazo mordo baten aurrean, herri xeheko klaseek beste klase sozialek baino askoz ere zorrotzago azaltzeko joera dutela. Alderantziz, egitura politikoari buruzko gaietan, gizarte ordena mantentzea edo aldatzea, ez bakarrik gizabanakoen arteko harreman moduak mantentzea edo aldatzea, kinkan jartzen duten gaietan, berritzearen aldekoagoak dira askoz ere herri xeheko klaseak; hau da, gizarte egituren aldaketaren aldekoagoak. Ikusten duzue 1968ko Maiatzean alderdi komunistaren eta ezker muturrekoen artean planteatutako —sarritan gaizki planteatutako— arazo batzuk nola zuzenean loturik dauden gaur arratsaldean azaldu nahi izan dudana arazo nagusiarekin: erantzunen izaera, hots, horiek produzitzeko printzipioaren izaera. Izan ere, bi galdera sorta horien artean egin dudana aurkako bereizketa iritzi produkzioen bi printzipioen arteko aurkako bereizketa da: printzipio propioki politikoa eta printzipio etikoa; hala nola, herri xeheko klaseen kontserbadurismo arazoa esplikatzen den bereizketa horren ezjakintasunaren gainean.

Hemendik dator problematikaren ezarpen efektua, iritzi inkesta guztiek eta galdeketa politiko guztiek (hasteko, hauteskundeetakoek) sortzen dutena: iritzi inkesta bateko galderak ez dira galdetutako pertsona guztiei benetan zuzendutako galderak, eta erantzunak ez dira interpretatzen kategoriatan ezberdinetako erantzuleek problematikaren funtzioan efektiboki erantzun dutenaren arabera. Horrela, bada, *problematika dominatzaileaz* —bi urtetik honantza sondeo institutuak jarritako galderen zerrendak irudikatzen duenaz—, hau da, batez ere boterea duen eta bere ekintza politikoa eratzeko bitartekoei buruz informatuta omen dagoen jendeari interesatzen zaion problematikaz, modu oso ezberdinean jabetzen dira klase sozial ezberdinak. Eta garrantzitsua dena, klase horiek gaitasun ezberdina dute kontra-problematika bat produzitzeko. Servan-Schreiberren eta Giscard d'Estaingean arteko telebista eztabaida baten harian, iritzi sondeoetarako institutu batek honelako galderak egin zituen: «Eskola lorpenak dohaien, adimenaren, lanaren, merituaren arabera ote dira?». Jasotako erantzunek, bai, informazioa ematen dute (produzitu dutenek ez dakitena), klase sozial ezberdinen kultur kapitalaren herentziazko transmisio legeen kontzientzia mailaz: oso sendoa da, herri xeheko klaseen artean, dohaiaren eta eskola bidezko igotze sozialaren mitoarekiko atxikimendua, eskola justiziaren eta tituluen arabera lanpostuen berdintasunezko banatzearen eta abarren mitoarekiko atxikimendua. Kontra-problematika existi daiteke intelektual batzuegan, baina ez du indar sozialik; alderdi edo talde batzuek hori jaso arren. Zientzia egiak ideologiak dauzkan zabalpen lege beraien mende dago. Jaiotzen erregulaziorako aita santuaren bulda baten antzekoa da zientzia proposizio bat: konbertitutakoentzako predikua.

Iritzi inkesta baten objektibotasun ideia lotzen da galdera terminorik neutroenetan jartzearekin, horrela erantzun guztiei aukera guztiak emateko. Benetan, iritzi inkesta zalantzarik gabe hurbilago egongo litzateke errealtatean gertatzen denetik, «objektibotasun» erregelak erabat hautsiz, jendeari baliabideak emango balitzaizkio praktika errealean kokatzen den bezala hor ere kokatzeko; hau da, iritzi jada formulatutakoen aurrean. Adibidez, «Badira batzuk jaiotzen erregulazioaren aldekoak, beste batzuk aurkakoak; eta zu?» esan beharrean, iritziak osatu eta zabaltzeko talde mandatudunen jarrera hartze esplizitu batzuk adieraziko balitzazkio, horrela jendea aurretik emandako erantzunen aurrean kokatu ahal izateko. Normalean «jarrera hartzei» buruz hitz egiten da; badira jada aurrez ikusitako jarrerak, eta *hartu* egiten dira. Baina ez dira nola edo hala hartzen. Esparruren batean okupatzen den posizioaren arabera hartzen dira jarrerak, aurretik hartzeko dagoen posizioaren funtzioan. Analisi zorrotz batek hartzeko jarreraren egituraren eta objektiboki okupatzen diren posizioen esparruaren egituraren arteko erlazioak esplikatzen jo behar du.

Iritzi inkestek iritziaren egoera birtualak eta, zehazkiago, iritzi mugimenduak oso gaizki jasotzen badituzte, honako honengatik da, beste arrazoi batzuen artean: iritziak atzemateko egoera zeharo artifiziala da. Iritzia formatzen den egoeretan, bereziki *krisi* egoeretan, jendea iritzi osatuen aurrean dago, taldeek sostengatzen dituzten iritziaren aurrean; era horretan, oso argi dago iritziaren artean aukera egitea taldeen artean aukeratzea dela. Honako hauxe da krisiak sortzen duen *politizazio efektuaren* printzipioa: politikoki definitzen diren taldeen artean egin behar da aukera, eta jarrera hartzeak gero eta gehiago mugatu, printzipio esplizituki politikoen arabera. Izan ere, honako hauxe iruditzen zait garrantzitsua: iritzi inkestak gizabanakoen iritziaren batuketa simple baten moduan hartzen duela iritzi publikoa; iritzi horiek funtsean isolamendu egoera batean jasoak izanda, gizabanakoak, ezkutuan isolatuta, iritzi isolatua adieraziz. Egoera errealean, iritziak indarrak dira, eta iritzi erlazioak taldeen arteko indar gatazkak.

Analisi horietatik beste lege bat ateratzen da: arazo bati buruz iritzi gehiago izaten da arazo horretaz zenbat eta interesatuagoa egon; hau da, zenbat eta interes gehiago izan arazo horretan. Adibidez, irakaskuntza sistemaren kasuan, erantzunen tasa erabat lotua dago sistema horrekiko dagoen hurbiltasun mailari, eta iritzi izateko probabilitatea aldatzen da iritzi ematen den gauza horren gainean boterea izateko probabilitatearekin. Iritzi gisa bat-batean azaltzen den hori indarra duen iritzi ematen duen jendearena da, hala esan ohi denez. Nazio Hezkuntzaren ministro bat iritzi sondeo baten arabera (edo, gutxienez, sondeo baten azaleko irakurketa baten arabera) ariko balitz, ez luke horrek zinez gizaki politiko moduan egiten duena egingo; hau da, jasotako telefono deiak kontuan hartuta, halako arduradun sindikalaren edo bestelako dekanoren bisita eta abar kontuan hartuta. Izan ere, benetan osatutako iritzi indarren funtzioan egiten du egiten duena; indarra daukatelako azaltzen dira pertzepziora iritziok, eta mugimenduan jartzetik jasotzen dute indarra.

Datozen hamar urteotan Unibertsitatea zer bilakatuko den aurreikusteko, mobilizatutako iritzia kontuan hartzea da, nire ustez, oinarririk onena. Edonola ere, erantzunik ezak kategoria batzuk iritzi estatusera —hau da, koherentzia asmoz egindako diskurtsora, entzuna izateko asmoz, nagusi izateko gogoz egindakora eta abar— ez direla heltzen adierazten badu ere, ez da hortik ondorio gisa atera behar, krisi egoeretan, iritzirik gabeko jendeak edonola aukeratzaren duenik. Jende horrek arazoa politikoki osatua dagoela uste badu (soldata arazoak edo lan erritmoa, langileen kasuan), konpetentzia politikoaren arabera egingo ditu aukerak. Arazoa ez dagoela politikoki osatua uste badu (enpresaren barruko harremanetan errepresioa), edo horrela osatzeko bidean dagoela, orduan disposizio sistema sakonki inkontziente batek gidatuta egingo ditu aukerak; estetikatik edo kiroletik hasi eta lehentasun ekonomikoetara zabaltzen diren hainbat arlotan egiten duen eran. Iritzi inkesta tradizionalak, aldi berean, presio taldeak eta diskurtso esplizituaren moduan adierazi ezin daitezkeen disposizio birtualak baztertzen ditu. Horregatik ez da gauza krisi egoeran gertatuko litzatekeenaren arrazoizko aurreikuspenik txikiena ere sortzeko.

Har dezagun irakaskuntza sistemaren erako arazo bat. Honelako galdera egin daiteke: «Zer uste duzu Edgar Faureren politikari buruz?». Hauteskunde inkesta batetik oso hurbil dagoen galdera da, honako zentzua duelako: behi guztiak beltzak diren gauaren antzekoa. Denak bat datoz *grosso modo*, zertaz den ez dakiten arren; jakina da zer esan nahi zuen Nazio Legebiltzarrean Faure legea ahoz batez bozkatua izateak. Ondoren honako hau galdetzen da: «Lizeo edo institutuetan politika sartzearen alde zaude?». Hor haustura oso garbia ikusten da. Berdin honakoa galdetzen denean: «Irakasleek grebarik egin dezakete?». Kasu horretan, herri xeheko klaseek badakite zer erantzun, beren konpetentzia politikoaren transferentzia baten bidez. Areago, honakoa ere galde daiteke: «Programak aldatu behar dira? Kontrol jarraiaeren alde zaude? Ikasleen gurasoak irakasleen kontseiluetan sartzearen alde zaude?» Agregazioa deuseztearen alde zaude?» eta abar. «Edgar Faureren alde zaude?» galderaren azpian galdera horiek guztiak zeuden, eta jendeak kolpetik arazo multzo batez posizioa hartu du; hain zuzen galdeketa on batek gutxienez hirurogei galderaren bidez bakarrik formula dezakeenari buruz, eta erantzunetan norabide guztietako aldakuntza izango luketen galderen aurrean. Kasu batean, iritziak hierarkia sozialari positiboki lotuta egongo lirarteke; beste batean, negatiboki. Kasu batzuetan, oso gogor; besteetan, ahul edo batere loturarik gabe. Aski da gogoan izatea hauteskunde kontsulta batek «Edgar Faureren alde zaude?» bezalako galdera baten limitea errepresentatzen duela ondoko hau ulertzeko: soziologia politikoan adituek seinala dezaketela, gizarte praktikaren ia arlo guztietan, klase sozialaren eta praktiken edo iritzien artean ikusi ohi den erlazioa oso ahula dela, hauteskunde fenomenoek dagokienez. Hain da hori horrela, batzuek ez baitute zalantzarik, ondorioz, esateko ez dagoela inolako erlaziorik klase sozialaren eta eskuinaren edo ezkeraren alde bozkatzearen artean. Gogoan izaten baduzue hauteskunde kontsulta batek galdera sinkretiko bakar

batean jartzen duela, era arrazoizko batez, berrehun galderaren bidez soilik atzeman daitekeena; batzuek zentimetrotan eta beste batzuek kilometrotan neurtzen dutela; hautagaien estrategia, flotatzen duten botoak irabazteko, galderak gaizki egitean eta batetik besterako diferentziak estaltzean dagoela; eta horrelako beste hainbat efektu; orduan honako ondorio hau aterako duzue: agian buelta eman behar zaio botoaren eta klase sozialaren arteko erlazioari buruzko galdera tradizionalari, eta galdetu nola gertatzen den, dena den, horrelako erlazio bat konstatatzea, ahula izan arren; eta galdetu hauteskunde sistemaren funtzioaz, tresna horrek, bere logika propioaz, gatazkak eta hausturak txikiagotzera jotzen duenez. Gauza bat dago argi: iritzi sondeo baten funtzionamendua arakatuz, iritzi inkesta berezia den hauteskunde kontsultari buruzko ideia bat izan daiteke, eta baita kontsulta horrek produzitzen duen efektuari buruz ere.

Labur esanda, honako hauxe adierazi nahi izan dut nik: iritzi publikoa ez da existitzen; bere existentzia baiesteko interesa dutenen forman, behintzat. Esan dut esplizituki formulatutako *interes* sistema baten inguruan mobilizatu-tako presio taldeen iritzi osatuak, mobilizatuak daudela, alde batetik; bestetik, disposizioak daudela, definizioz iritzi ez direnak, analisi guzti honetan zehar halaxe hartu dudanez, koherentzia asmoren batekin diskurtsoan formula daitekeena delako iritzia. Iritziaren definizio hori ez da iritziari buruzko nire iritzia. Iritzi sondeoek praktikan darabilten definizioa esplizitatzea besterik ez da; sondeo horiek iritzi formulatuei buruzko posizioa hartzea eskatzen diote jendeari, eta, era horretan, iritzi publikoa deritzon artefaktua produzitzen dute produzitutako iritzien eransketa estatistiko sinplea medio. Nik sinpleki diot iritzi publikoa, iritzi sondeoak egin edo horien emaitzak erabiltzen dituztenek inplizituki onartzen duten adieran, ez dela existitzen.